

ERABILERA SUSTATZEKO GETXOKO EKINTZA PLANA ESEP 2013-2016

1. Euskararen jabekuntza

- **Familia bidezko transmisioa.**
- **Euskalduntzea - prestakuntza.**
- **Irakaskuntza.**
- **Kultura-artekotasuna.**

2. Euskararen erabilera

- **Administrazioa.**
- **Lan mundua.**
- **Aisia.**
- **Kirola.**

3. Euskararen elikadura

- **Kulturgintza.**
- **Komunikabideak.**
- **Teknologia berriak.**

<1. Esparrua 1.1. Helburua 1.1.1. Estrategia 1.1.1.1. Ekintza>

1. FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

1.0. Alorreko eragileen arteko koordinazioa eta elkarlana	
1.0.1. Koordinazioa	1.0.1.1. Familia alorrean diharduten eragileekin koordinatzea eta elkarlanean jardutea.
	1.0.1.2. Gurasoei, gurasogaiei eta familia transmisioari begira bideratutako proiektua sustatzea.
	1.0.1.3. Haurtzaindegiekin hitzarmengintza sustatzea.
	1.0.1.4. Ikastetxeekin hitzarmengintza sustatzea.
	1.0.1.5. Aisialdiko talde, elkarte eta enprekin hitzarmengintza sustatzea.
	1.0.1.6. Sektorearen inplikazioa bilatzea udal hizkuntza politiketan.
	1.0.1.7. Ume txikien gurasoei euskararen errealitatea ezagutzera ematea eta erabilera handitzeko estrategia eta irizpideak lantzea.
1.1. Euskararen erabilera handitu etxeko esparruan, eta transmisioa ziurtatu familia kideen arteko hizkuntza izan dadin	
1.1.1. Sentsibilizazioa	1.1.1.1. Guraso eta aitona-amonengan eragitea, euskararen familia bidezko transmisioa ziurtatzeko: Kanpainak, jardunaldiak eta hitzaldiak antolatu eta antolatzen laguntzea.
	1.1.1.2. Haur jaio berrien gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako bildumak igortzea: ipuinak, kantuak, euskarazko gela apaingarriak, euskal izendegia...
	1.1.1.3. Gurasoengan eragin euren hizkuntza ohiturak seme-alabengan duen eraginaz jabe daitezen.
	1.1.1.4. Kultura, ekonomia edo politika munduko pertsona erreferentzialen bidez mezuak zabaltzea komunikabideetan, musikaz, kirolaren bitartez.
	1.1.1.5. Gurasoengan eta komunitate bakoitzeko partaideengan eragitea, euskararen erabilera bultzatzeko une oroigarrietan (bataioak, jaunartzeak, ezkontzak, hiletak...).

1.1.2. Komunikazioa	1.1.2.1. Seme-alabekin euskara praktikatzeko dituzten aukerez gurasoak informatzea: web orrian jarri, gurasoei bidali, udalaren menpeko guneetan eskuragarri jarri... Sentsibilizazioa eta komunikazioa landu etxean euskarazko produktuak kontsumitzeko.
	1.1.2.2. Haurrentzako zerbitzuei buruzko informazioa ezagutzera ematea.
	1.1.2.3. Haur jaio berrien gurasoei euskaraz eskura dituzten zerbitzuei buruzko informazioa ematea (haurra izan aurreko ikastaroak, dokumentazioa,...) edo zerbitzu hori eskain dezakeen erakunde, elkarte edo enprekin elkarlanean jardutea.
1.1.3. Ekitaldiak antolatu	1.1.3.1. Guraso berrientzako saio erakargarriak antolatzea euskaraz: haurrak nola hezi, nola elikatu, gaixotasunei nola egin aurre... <ul style="list-style-type: none"> • Familia osatu berria duten bikote erdi-euskaldunetan erabilera sustatzeari begirako jarduerak antolatu • Familia osatu berria duten bikote euskaldunetan bai haurrekin eta bai elkarren artean ere erabilera sustatzeko jarduerak • Ekintza konpartituak antolatu aita-ama eta haurrentzat.
	1.1.3.2. Familia giroan euskarazko produktuak kontsumitzeko sentsibilizazioa eta komunikazioa lantzeko. eta guraso-ume harremanean euskara garatzen laguntzeko tailer, irteera, kanta eta elkarren artean burutzeko jarduerak sustatu eta laguntzea.
	1.1.3.3. Guraso-seme-alaba harremanetan euskarazko ohiturak sustatzen laguntzeko ekimenak bultzatzea.
	1.1.3.4. Ekitaldiak antolatzea familia osoa aintzat hartuta eta ikastetxe eta guraso elkarteekin elkarlanean.

2. EUSKALDUNTZEA - PRESTAKUNTZA

2.0. Alorreko eragileen arteko koordinazioa eta elkarlana	
2.0.1. Koordinazioa	2.0.1.1 Euskalduntze eta prestakuntza alorretan diharduten eragileekin koordinatzea eta elkarlanean jardutea.
	2.0.1.2. Euskara Zerbitzua eta Udal Euskaltegiaren arteko koordinazioa eta komunikazioa landu eta garatzea.
	2.0.1.3. Hizkuntza akademiak, Hizkuntza Eskola Ofiziala eta batez ere Euskaltegiak merkataritza sustatzeko proiektuetan inplikatzeari.
	2.0.1.4. EGIZU egitasmoa sustatu eta zabaltzea.
	2.0.1.5.-Sektorearen inplikazioa bilatzea udal hizkuntza politiketan.

2.1. Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitu herritarren artean

2.1.1. Sentsibilizazioa

- 2.1.1.1. Herritarrengan modu erakargarrian eragitea, dakiten euskara hori plazan ere erabiltzeko. Herriko eta inguruko eragileekin elkarlanean ekimenak definitu eta martxan jartzea. Kanpainak sustatzea.
- Erabilera bultzatu eta prestigiatu, euskaraz dakitenek, ikasi zutenek eta ikasleek erabili dezatela sustatzeko.
 - Euskaraz ulermena soilik duen publikoa euskararantz eta euskal kulturarantz erakartzeko kanpaina bereziak.
 - Euskararen munduari prestigioa eman eta euskararen alde egindako lana aitortu gizartearen aurrean.
 - Euskararen erabilera soziala indartzeko euskara jakin eta erabiltzeko prest dauden herritarren sarea sustatu.
 - Euskararen erabilera soziala saritu.
- 2.1.1.2. Berezi etorri berriei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak antolatzea, euskara ikasteak ekar litezaiekeen onurak azpimarratuz. Etorri berrientzako harrera programekin uztartzea.
- 2.1.1.3. Gazteengan eragitea adin talde horietarako erreferente diren pertsonetan oinarrituta.
- 2.1.1.4. Motibazioa lantzea: motibazio praktikoa, motibazio sentimentala eta motibazio kulturala.
- 2.1.1.5. Euskara ikasten dabilena saritzea: sarrerak zozketatu, eskualdeko egunkari edo aldizkarietarako harpidetzak bultzatu ...
- 2.1.1.6. Euskara komunikatiboa sustatu eta zabaltzea. Getxoko euskalkiari lekua egitea.
- Euskaltegietan eta elkarteetan sentsibilizazio kanpainak egin Bizkaiko, Uribe Kostako eta Getxoko euskararen alde.
- 2.1.1.7. Euskararen aldeko ekimenetan parte hartzea sustatzea.
- 2.1.1.8. Txartel bereziak sortu gazteentzat ("euskara-txartela") eta abantailak eskaintzea: euskal musika emanaldietarako sarrerak zozketatu, euskal literatura liburuak, teknologia berrietan oinarritutako jolasak...
- 2.1.1.9. Bertoko euskaltegietako ikasleak eta diasporako euskara-ikasleak harremanetan jartzea sustatzea eta horretan Euskara Zerbitzuak zubi-lana egitea.

2.1.2. Komunikazioa	2.1.2.1. Eskualdeko euskaltegiei buruzko gida osatzea: zerbitzuak, ordutegiak, helbideak... eta herritarrengana zabaltzea. <ul style="list-style-type: none"> Euskaltegiekin batera euren jarduera eta irudia sustatzeko marketing kanpaina prestatu.
	2.1.2.2. Euskara ikasteko prozedurari buruzko informazio orokorra eskaintzea modu erakargarrian: <ul style="list-style-type: none"> Matrikulazio kanpainaren informazioa. Euskara ikasteko diru-laguntzei buruzko informazioa eta udalerrian euskaldunberrientzat edo eta gurasoentzat euskara erabiltzeko dauden aukerei buruzko informazioa zabaldu.
2.1.3. Laguntza ekonomikoa eta teknikoa eskaini	2.1.3.1. Euskara ikasteko diru-laguntzak eskaintzea.
2.1.4. Ikastaro bereziak antolatu eta euskarriak eskaini	2.1.4.1. Berbalagun proiektua jorratzeko taldea sustatu eta laguntzea.
	2.1.4.2. Xede talde bakoitzari egokitutako hiztegitxoak sortzea euskaltegiekin elkarlanean.
	2.1.4.3. Euskarazko komunikazio gaitasuna hobetzeko saioak antolatzea euskaltegi eta ikastetxeekin elkarlanean: jolasak, txapelketak, irteerak, antzerkiak eta orokorrean, gai ludikoak. Ahozko adierazpena indartzeko ekintzak antolatzea.
2.2. Helduen prestakuntza eskaintzan euskararen erabilera handitu	
2.2.1. Sentsibilizazioa	2.2.1.1. Helduentzako prestakuntza antolatzen dutenengan eragitea ikastaroak euskaraz ere antola ditzaten (autoeskola, jubilatue elkarte, kultur elkarte, merkatari elkarte).
2.2.2. Komunikazioa	2.2.2.1. Informazioa ematea herritarrei euskarazko helduen prestakuntza zerbitzuez: triptikoak osatu, udaleko aldizkarian agertu, Herri Ekimeneko Tokiko Euskal Komunikabideetan iragarri, web orrian zintzilikatu...
2.2.3. Eskaintza sustatu	2.2.3.1. Udalak antolatzen dituen ikastaroetan euskarazkoak bultzatzea. Kultur Etxeak antolatzen dituen Euskara Tailerrak koordinatzea.
	2.2.3.2. Helduentzako era guztietako ikastaro eta ekimenak antolatzea euskaraz: Gizarte Zerbitzuekin batera, jubilatuentzako euskara ikastarotxoak edo tailerrak antolatu.
2.2.4. Laguntza ekonomikoa eta teknikoa eskaini	2.2.4.1. Laguntza eskaini, beste eragileek antolatzen dituzten ikastaroak euskaraz izateko.

3. IRAKASKUNTZA

3.0. Alorreko eragileen arteko koordinazioa eta elkarlana

3.0.1. Koordinazioa	3.0.1.1. Irakaskuntza alorrean diharduten eragileekin modu globalean koordinatu eta elkarlanean jardutea.
	3.0.1.2. Ikastetxeekin hitzarmengintza sustatzea.
	3.0.1.3. Familiaren esparruko eragileak IkasGEHI batzordean txertatzea.
	3.0.1.4. GEHI Haurtzaindegiak sustatu eta zabaltzea (hitzarmenak haurtzaindegiekin).
	3.0.1.5. Akademiarekin hitzarmengintza sustatzea.
	3.0.1.6.-Sektorearen inplikazioa bilatzea udal hizkuntza politikan eta era berean udalak hezkuntza zentroekin koordinazioa mantentzea, euskara hizkuntza akademikoa izateaz gain, komunikazio hizkuntza izateko eta gune ez-akademikora ere zabaltzeko, eskola-orduz kanpoko aldi hezitzailea zainduz.
	3.0.1.7. Ikastetxeetan Hizkuntza Normalkuntzan diharduten teknikariekin koordinazioa lantzea hizkuntza proiektuak garatzeko helburuarekin.
	3.0.1.8. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin elkarlanean Getxoko ikastetxeetan matrikulatzen diren etorkinentzako harrera planak diseinatzea.

3.1. Euskarazko ikastereduak sustatu	
3.1.1. Sentsibilizazioa	3.1.1.0. Gurasogai eta guraso berriengan eragitea, haurtzaindegian eta derrigorrezko hezkuntzan euskara eredueta murgiltzeak dituen abantailak azaltzeko.
	3.1.1.1. Batxiler edo Lanbide heziketan sartzeaz dauden gazteengan eragitea, euskarazko eredueta ikasten jarraitzeak dakartzan abantailak azaltzeko. Komunikazioa eta sentsibilizazioa sustatzea.
3.1.2. Komunikazioa	3.1.2.1. Gurasogai eta guraso berriei informazioa ematea 0-3 adinekoentzat udalerrian dauden zerbitzuez.
3.1.3. Eskaintza sustatu	3.1.3.1. Ikastetxe, haurtzaindegi eta haur eskoletan euskara eta euskal kultura sustatzeko udalak sinatuta dituen hitzarmenak garatzen eta sustatzen jarraitzea. <ul style="list-style-type: none"> • IKASGEHI. • GEHI HAURTZAINDEGIAK. • GEHI AKADEMIAK.
	3.1.3.2. Ikastetxeek eta guraso elkarteek euskararen erabilera indartzeko prestatzen dituzten proiektuak diruz laguntzea.
	3.1.3.3. Eskolaz kanpoko ekintzetan diharduten eragileekin koordinazioa izatea euskara modu berezi eta ludikoan landu eta sustatzeko.
	3.1.3.4. Leioako Udalarekin elkarlanean eskualdeko CIPEan euskararen presentzia areagotzea.
3.2. Eskolaz kanpoko prestakuntza jardueretan euskararen erabilera areagotu	
3.2.1. Komunikazioa	3.2.1.1. Herritarrei informazioa ematea euskarazko eskolaz kanpoko prestakuntza zerbitzuez.
	3.2.1.2 Euskara Zerbitzuak eskaintzen dituen diru-laguntza eta zerbitzuen inguruko informazioa ematea.
3.2.2. Eskaintza sustatu	3.2.2.1. Hitzarmena sinatzea, ikastetxe, euskaltegi edota herriko akademiekin, haur eta gazteei zuzenduta, euskara sustatzeko asmoz.
	3.2.2.2. Hitzarmena sinatzea eskolaz kanpoko prestakuntzan dihardutenekin (musika eskolak, hizkuntza eskolak, margo eskolak...), euskarazko eskaintza handitzeko.
3.3. Eskola-orduetan euskararen erabilera areagotu	
3.3.1. Ekitaldiak antolatu	3.3.1.1. Euskara sustatzeko programa bereziak gauzatzea (ahozkotasuna, bertsolaritza...).

11. KULTURA-ARTEKOTASUNA

11.0. Alorreko eragileen arteko koordinazioa eta elkarlana	
11.0.1. Koordinazioa	11.0.1.1. Immigrazio eta kultura-artekotasun alorretan diharduten eragileekin koordinatu eta elkarlanean jardutea. 11.0.1.2. Sektorearen inplikazioa bilatzea udal hizkuntza politiketan.
11.1. Getxotik kanpoko pertsonak euskara eta euskal kulturara hurbildu eta integrazioa sustatu	
11.1.1. Sentsibilizazioa	11.1.1.1. Etorri berriei bereziki zuzendutako sentsibilizazio kanpainak antolatzea, euskara ikasteak ekar litzaiekeen onurak azpimarratuz. Etorri berrientzako harrera programekin uztartu. 11.1.1.2. Aisialdi taldeetan eragitea, etorri berriak, euskara eta aisialdia uztartuko dituzten ekimenak antolatu ditzaten.
11.1.2. Komunikazioa	11.1.2.1. Etorri berriei bereziki zuzendutako komunikazio kanpainak egitea. 11.1.2.2. Etorri berriei bereziki zuzendutako hitzaldiak eta banan banako elkarrizketak antolatzea euskarazko eredu berri emateko. 11.1.2.3. Etorri berrien integrazioa bideratutako aisialdi programak bideratzea.
11.1.3. Ikastaro bereziak antolatu eta laguntzak eskaini	11.1.3.2. "Berbalagun" proiektua jorratzeko taldea sustatu eta laguntzea (atzerritarrak eta adin guztietako euskaldun zahar eta berriak aintzat hartuta). Formula berriak aztertzea: bazkari-laguna, kirol-laguna... 11.1.3.3. Etorri berriei bereziki zuzendutako hitzarmenak bilatzea euskara eta euskal kultura ezagunak egiteko. Euskara irakasteko modu berritzaile eta hartzaileei egokituak proposatzea. 11.1.3.4. HABErekin elkarlana sustatzea etorkinak xede talde berezitzat hartzeko eta horrela, beraien arabera metodologia egokia erabiliz, hizkuntzaren ezagutza sustatzea. Era berean, etorkinak euskal hizkuntza komunitatera hurbiltzeko zubi-lana egitea.
11.2 [KULTURGINTZA] 8.1.4 Kulturen arteko harremanak sendotzea sustatu	
11.2.1. Sentsibilizazioa	11.2.1.1. Bideo emanaldiak antolatzea kultura ezberdinak ezagutzera emateko.
11.2.2. Komunikazioa	11.2.2.1. Etorri berriak hizlaritzat hartu eta ekitaldiak antolatzea haien esperientzia eta jatorriari buruzko ezagutza izateko.
11.2.3. Ekintzak antolatu	11.2.3.1. Herrialde desberdinetako ohiturak ezagutzera emateko ekitaldiak antolatzea: musika, janari, bestelako produktu, merkatu, dantza, kirol... edota beste gairen baten inguruan.

4. ADMINISTRAZIOA

4.0. Alorreko eragileen arteko koordinazioa eta elkarlana

4.0.1. Koordinazioa eta sustapen planak	<p>4.0.1.1. III. Euskara Plan Nagusi hau eta administrazioko erabilera plana urteroko kudeaketa saioetan banatzea eta, urtero, Euskararen Aholku Batzordearen bitartez, kudeaketa aldi horretan martxan jarri diren neurriei jarraipena eta balorazioa egitea.</p> <p>Egindako jarraipenaren eta balorazioaren ondorioz Aholku Batzordeak aldaketak proposatzea beti ere Udal erabaki organuek onartutakoaren barruan.</p>
	<p>4.0.1.2. Plan honen helburuen eta martxan jarritako neurrien mesedetan, Getxoko Udalaren euskara ordenantza proposatzea.</p>
	<p>4.0.1.3. Administrazioaren alorrean diharduten eragileekin koordinatu eta elkarlanean jardutea.</p>
	<p>4.0.1.4. Euskara Zerbitzuaren berri ematea eta euskararekin lotutako informazioa Udal osoan banatzea, baita udal autonomiadun erakundeetan ere.</p>
	<p>4.0.1.5. Euskararen inguruan lan egiten duten eragileekin lanak koordinatzea.</p>
	<p>4.0.1.6. Azterketa soziolinguistikoa egitea.</p>
	<p>4.0.1.7. Bizkaian edo eta Uribe Kosta mailan diharduten administrazio publikoetan euskararen erabilera sustatzeko ekimenak pentsatu, koordinatu eta gauzatzea.</p>
	<p>4.0.1.8. Getxon lan egiten duten alderdi politiko eta sindikatuekin hitzarmenak sinatzea Getxoko Udalean egiten duten eguneroko lanean euskararen presentzia eta erabilera gehitzeko.</p>
	<p>4.0.1.9. Sektorearen inplikazioa bilatzea udal hizkuntza politiketan.</p>

4.1. Hizkuntza-gaitasuna	
4.1.1. Salbuetsitakoen euskararen ezagutza hobetu	4.1.1.1. Salbuetsitakoen hizkuntza-maila eta jarrerak aztertu eta sensibilizatzeko-lana egitea.
	4.1.1.2. Salbuetsitakoei egokitutako hizkuntza-prestakuntza eskaintzea.
	4.1.1.3. Udalerriko momentuko errealitate soziolinguistikoa kontuan izanda administrazioaren gutxieneko indize soziolinguistikoa egokitzeko aukera aztertzea.
4.1.2. Arduradun politikoen euskararen ezagutza hobetu	<p>4.1.2.1. Komunikazioa eta sensibilizazioa lantzea arduradun politikoen artean, erabilera-planean eta horren ezarpenean inplikatzen.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskara ikasteko motibatu eta informazioa eta erraztasunak eman. • Euskararen aldeko kontzientziazioan eredu izan daitezela eskatu.
4.2. Ahozko komunikazioa	
4.2.1. Udaleko ahozko kanpo-harremanetan euskararen erabilera gehitu	4.2.1.1. Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatzea ahozko komunikazioetarako.
	4.2.1.2. Komunikazioa eta sensibilizazioa lantzea langileen artean: Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako irizpideak ezagutzera eman, herritarrek dituzten hizkuntza-eskubideez informatu.
	4.2.1.3. Komunikazioa eta sensibilizazioa lantzea, administrazioarekin euskarazko harremanak sustatze aldera.
	4.2.1.4. Udalarekin euskarazko harremana edo harreman elebiduna izan nahi duten herritarren nahia asetzeko, beste esperientzia batzuk aztertzea eta udalak eskaera horri erantzuteko gaitasuna baloratzea.
	4.2.1.5. Lehen harremana euskaraz izan dadin protokoloak zehaztea eta horiek betetzeko neurriak hartzea (aurrez aurrekorako, telefonoz jarduteko...).
	4.2.1.6. Adierazgarriak jartzea herritarrei euskararen erabilera-eskubideak ezagutzera emateko (mahai-gainekoak...). eta jendaurrean lan egiten duten udal langileek harrera euskaraz egitea.
	4.2.1.7. Interpretaritzaz baliatzea jendaurreko ekintza instituzionaletan.
	4.2.1.8. Euskaraz lan egiten dutenei errekonozimendua egitea, saritzea eta motibatzeneko neurriak proposatu eta gauzatzea.
	4.2.1.9. Udaltzainetako patruiletan, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko bideak jartzea.
	4.2.1.10. Euskara harrera hizkuntza bezala ziurtatzea udalaren eraikin eta zerbitzu guztietan.

4.2.2. Udaleko ahozko barne-harremanetan euskararen erabilera gehitu	4.2.2.1. Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatzea Udal barruko ahozko komunikazioetan.
	4.2.2.2. Langile eta arduradun politikoengan eragitea, hartzaile pasiboei prestigioa emateko.
	4.2.2.3. Adierazgarriak lantzea, euskaraz lan egiteko prestatuta dauden langileek elkarren berri izan dezaten eta gainerakoei ezagutzera emateko (mahai gainekoak, pinak...).
	4.2.2.4. Euskaraz arituko diren langileen sarea sustatzea, bai ahoz eta baita idatziz ere, erabilera-ohiturak sortuz joan daitezten.
	4.2.2.5. Langile hasi berriekin harremanetan jartzea euskaraz lan egiteko Udalean dauden irizpideak komunikatzeko.
	4.2.2.6. Mintzataldeak sortzea.
	4.2.2.7. Euskaraz sortzen duenari errekonozimendua egitea, saritzea eta motibatzeke neurriak proposatu eta gauzatzea.
4.2.3. Erabilera-planaren eraginpeko langileen ahozko euskararen erabilera gehitu	4.2.3.1. Trebakuntza planaren barruan euskalduntze-alfabetatze saioak ere antolatzea horren premia ikusten denean.
	4.2.3.2. Urtero euskarazko formazio-ikastaroen eskaintza luzatzea udal langileei.
	4.2.3.3. Trebakuntza. ...Euskara hobetzeko ikastaroak antolatu eta eskaintzea trebakuntza planaren barruko langile euskaldunei.
	4.2.3.4. Euskarazko komunikazioa lehenesten duten langileak identifikatzea eta horien arteko sarea sortzea.
	4.2.3.5. Mintzataldeak sortzea.
	4.2.3.6. Euskaraz sortzen duenari errekonozimendua egitea, saritzea eta motibatzeke neurriak proposatu eta gauzatzea.
	4.2.3.7. Ikastaro bereziak antolatzea: bilerak dinamizatzeko teknikak, jarioasuna lantzekoak...
	4.2.3.8. Laneko harreman informaletan euskararen erabilera areagotzeko mintza-saioak sustatzea, ezagutzamaila desberdinetako jendea harremanetan jarri eta erabilera bultzatzeko Mintzalaguna proiektuan oinarritutako esperientziak martxan jartzea.

4.3. Idatzizko komunikazioa

4.3.1. Udalaren idatzizko kanpo-harremanetan euskararen erabilera gehitu, sortze-lana areagotuaz, komunikazioen kalitatea zainduta eta edozein euskarritan

4.3.1.1. Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatzea idatzizko kanpo-harremanetan, paper bidezkoetan zein telematikoen, eta betetzea bermatzea.

4.3.1.2. Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatzea hirugarrenekiko idatzizko kanpo-harremanak eragingo dituzten kanpo-kontratazio administratiboetan eta horiek betetzeko neurriak hartzea.

4.3.1.3. Euskal administrazioetan izandako beste esperientzia batzuetan oinarrituta eta Udalaren gaitasunak ikusita, harremanak euskaraz izan nahi dituzten herritarren errolda egitea.

4.3.1.4. Harremanak euskaraz izan nahi dituzten udalak aintzat hartzea. Horiekiko harremanetarako protokolo bat definitu eta Udalean ezagutzera ematea.

4.3.1.5. Kanpora begirako dokumentu estrategiko orokorrak identifikatzea, euskaratzea (beharrezkoa denean), moldatzea (testu argiak, zuzenak, egokiak eta erakargarriak izan daitezzen) eta langileen esku jartzea euskarri ezberdinetan.

4.3.1.6. Idazki elebidunetan euskara nabarmentzeko irizpideak zabaldu eta berauek betetzea bermatzea.

4.3.1.7. Dokumentu nagusien komunikagarritasuna neurtzeko edo baloratzeko prozedura finkatzea.

- Euskararen kalitatea zaindu eta hobetu etengabe, ahoz eta idatziz, ulergarritasun eta komunikazio hobe lortzeko.

4.3.1.8. Euskaraz lan egiten duten zerbitzuak (edo eskaini daitezkeenak) identifikatzea, eta horien berri ematea kanpoko eragileei.

4.3.1.9. Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatzea itzulpenetan eta berauek betetzea bermatzea. Itzulpen politika aztertu, zehaztu eta jakinaraztea.

4.3.1.10. Itzulpenen erabilerari buruzko sentsibilizazioa zabaltzea.

4.3.1.11. Komunikazioa landu eta langileei jakitera ematea euskaraz lan egiteko erabilgarri dauden tresnak, hiztegi elektronikoak, zalantzak argitzeko bideak.

4.3.1.12. Bestelako bideak jorratzea: korredakzioa, idazketa elebiduna, laburpenak/aipamenak egin betiere komunikagarritasuna eta testuen ulergarritasuna aintzat hartuta.

4.3.2. Udaleko idatzizko barne-harremanetan euskararen erabilera gehitu, sortze-lana areagotuaz, komunikazioen kalitatea zainduta eta edozein euskarritan	4.3.2.1. Hizkuntza Ofizialen Erabilerrako Irizpideak finkatzea idatzizko barne-harremanetarako eta betetzea bermatzea.
	4.3.2.2. Komunikazioa eta sentsibilizazioa lantzea langileen artean, idatzizko barne-komunikazioetan Udalak ezarri dituen Hizkuntza Ofizialen Erabilerrako Irizpideak ezagutzera emateko.
	4.3.2.3. Euskaraz lan egiteko prestatuta dauden langileek elkarren berri izan dezaten eta gainerakoei horren berri emateko adierazgarriak lantzea (posta elektronikoko zerrendak, mahai-gainekoak, pinak).
	4.3.2.4. Udal barruan komunikazioak euskaraz jaso nahi dituzten langileak identifikatzea eta horiei informazioa zabaltzeko protokolo bat zehaztea.
	4.3.2.5. Barrura begirako dokumentu estrategiko orokorrak identifikatu eta moldatzea (testu argiak, zuzenak, egokiak eta erakargarriak izan daitezen) eta langileentzako erabilgarri jartzea.
	4.3.2.6. Dokumentu nagusien komunikagarritasuna neurtzeko eta baloratzeko prozedura finkatzea.
4.3.3. Erabilera-planaren eraginpeko langileen idatzizko kanpo eta barne harremanetan euskararen erabilera gehitu, sortze-lana areagotuaz, komunikazioen kalitatea zainduta eta edozein euskarritan	4.3.3.1. Ikastaro bereziak antolatzea: birziklatzea, administrazio-hizkera, hizkera juridikoa...
	4.3.3.2. Trebakuntza.
	4.3.3.3. Idazki-ereduak moldatzea, zuzenagoak, ulergarriagoak eta erakargarriagoak izan daitezen.
	4.3.3.4. Beste zenbait baliabide eskaini langileei: zerrenda terminologikoak, dokumentuen datu-baseak, testuen egokitzapenak, itzulpenak...
	4.3.3.5. Euskarazko sortze-lana bultzatzeko langileen errekonozimendu-sistema definitzea.
	4.3.3.6. Eguneroko lanean sortu daitezkeen zalantzak argitzeko sistemak zehaztea.
	4.3.3.7. Langileen eguneroko zereginei eta erabiltzen dituzten dokumentuei egokitutako material didaktikoa sortu, hedatu eta formazio gaietarako erabilgarri jartzea.

4.4. Itzulpenak	
4.4.1. Garai bateko itzulpenen kalitatea hobetu	4.4.1.1. Garai batean itzulitako erabilera handiko dokumentu elebidunak aztertu eta txukuntzea, baita aplikazioetan daudenak ere.
	4.4.1.2. Eguneratutako dokumentuak ezagutzera ematea. Langile guztien esku jartzea.
4.4.2. Euskaraz ez dauden idazkien bertsio elebiduna ziurtatu	4.4.2.1. Idazki-ereduak moldatzea, zuzenagoak, ulergarriagoak eta erakargarriagoak izan daitezen.
	4.4.2.2. Eguneratutako dokumentuak ezagutzera ematea. Langile guztien esku jartzea.
4.5. Langileen prestakuntza orokorra	
4.5.1. Langileen prestakuntza orokorrean euskararen erabilera areagotu	4.5.1.1. Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatzea eta betetzea bermatzea.
	4.5.1.2. Langileen prestakuntza orokorrari dagokion hizkuntza irizpideen inguruan komunikazioa eta sentsibilizazioa lantzea langileen artean.
	4.5.1.3. Euskarazko ikastaro gehiago eskaintzea kalitatea aintzat hartuta (ikastaroaren edukiari berari dagokionean eta baita komunikazio-tresnari dagokionean ere).
	4.5.1.4. Ezagutza egokia duten langileei euskarazko ikastaroak eskaintzea.
4.6. Tresna eta aplikazio informatikoak	
4.6.1. Tresna eta aplikazio informatikoetan euskararen erabilera gehitu	4.6.1.1. Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatzea tresna eta aplikazio informatikoetan.
	4.6.1.2. Komunikazioa eta sentsibilizazioa lantzea langileen artean: tresna eta aplikazio informatikoei buruzko Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak ezagutzera ematea, horien betetzea bultzatzeko, euskarazko bertsioa erabiltzeko...
	4.6.1.3. Euskaraz jarri daitezkeen programa eta aplikazio informatikoak hautatu eta euskarara egokitzea.
	4.6.1.4. Programa eta aplikazio informatikoetako euskarazko bertsioa jartzea planaren eraginpean dauden langileei.
	4.6.1.5. Prestakuntza eskaintzea programa eta aplikazio informatikoak euskaraz erabiltzeko.
	4.6.1.6. Berriazko aplikazio eta programen euskarazko bertsioa berritzea, zuzentzea, gaurkotzea...
	4.6.1.7. Informatika arloarekin elkarlanean, udalean sortzen diren aplikazioetako hizkuntza egokia eta ulergarria izateko protokoloa adostea eta kontratu bidez erosten diren aplikazioetan hizkuntza irizpideak sartzea.

4.7. Internet eta Intranet sareak	
4.7.1. Udal barruko sarean, Intranet sarean eta web orrian, euskararen presentzia gehitu	4.7.1.1. Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak definitzea Intranet eta Internet sarean zintzilikatzen diren edukietan eta neurriak hartu horiek betetzen direla bermatzeko.
	4.7.1.2. Komunikazioa eta sentsibilizazioa lantzea langileen artean Udalak Intranet eta Internet sarerako zeintzuk Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpide ezarri dituen ezagutzera emateko eta horiek betetzera bultzatzeko.
	4.7.1.3. Intranet bidez bidaltzen diren barne-oharretan protokoloak ezartzea (nori, euskaraz; nori, gaztelaniaz...).
	4.7.1.4. Jarraibideak finkatzea eduki berriak bi hizkuntzetan sortu eta sarean jartzeko.
	4.7.1.5. Sareko edukiak ele biz jartzea eta komunikagarritasuna eta kalitatea bermatzea (testu argiak, zuzenak eta hartzaileari egokituak).
4.8. Argitalpenak	
4.8.1. Argitalpenetan euskararen presentzia gehitu	4.8.1.1. Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatzea edozein euskarritako argitalpenetarako, eta betetzea bermatzea.
	4.8.1.2. Komunikazioa eta sentsibilizazioa lantzea langileen artean Udalak argitalpeni dagokienez ezarri dituen hizkuntza-irizpideei buruz.
	4.8.1.3. Argitalpenetako hizkera argia, zuzena, egokia eta erakargarria izatea sustatzea eta bereziki Getxoberriren hizkera zaintzea.
4.9. Hizkuntza-paisaia (errotulazioa eta noizbehinkako oharrak)	
4.9.1. Udal barruko hizkuntza-paisaian euskararen presentzia gehitu	4.9.1.1. Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatzea eta betetzea bermatzea hizkuntza-paisaiaren arloan.
	4.9.1.2. Komunikazioa eta sentsibilizazioa lantzea langileen artean Udalak hizkuntza-paisaiaren arloan ezarri dituen hizkuntza-irizpideez.
	4.9.1.3. Hizkuntza-paisaia aztertu eta antzematen diren gabeziak zuzentzea.
	4.9.1.4. Hornitzaileekin harremanetan jartzea, tresna berrien paneletan euskararen erabilera bermatzeko.
	4.9.1.5. Euskara nabarmentzea ele bietan dauden ohar edo errotuluetan (tamaina, kokapena...).
	4.9.1.6. Gune turistiko garrantzitsuak kudeatzen dituzten enpresa pribatuekin elkarlanean jardutea errotulazioa, ahozko komunikazioa eta ikus-entzunezkoak kalitatezko euskaraz eskaintzeko.

4.9.2. Administrazioaren eraginpeko bide-seinale, toponimia eta gainerako noizbehinkako oharretan euskararen erabilera handitu, komunikagarritasuna zainduta	4.9.2.1. Administrazioaren eraginpeko herriko seinaleen gaineko azterketa egitea eta gabeziak identifikatzea.
	4.9.2.2. Administrazioaren eraginpeko bide-seinaleak euskaraz jartzeko prozedurak zehaztea, kasuan kasuko arduradunarekin batera.
	4.9.2.3. Herriko izendegia (toponimoak, kale-izenak, parke publikoetakoak...) euskaraz jartzea eta oker daudenak zuzentzea.
	4.9.2.4. Euskararen presentzia bermatzea herriko obretan.
	4.9.2.5. Euskararen presentzia lehenetsi eta bere kalitatea bermatzea noizbehinka egiten diren feria, azoka edota merkatuetako kartel, ohar eta informazio-orrietan. Bereziki zaintzea haur eta gazteentzako guneak eta idatziak.
4.10. Iragarkiak, publizitatea eta kanpainak	
4.10.1. Iragarki, publizitate eta kanpainen euskararen presentzia gehitu, komunikagarritasuna zainduta	4.10.1.1. Hizkuntza Ofizialen Erabilerrako Irizpideak finkatu eta betetzea bermatzea iragarki, publizitate eta kanpainen.
	4.10.1.2. Komunikazioa eta sentsibilizazioa lantzea langileen artean, Udalak iragarki, publizitate eta kanpainen arloan ezarri dituen hizkuntza-irizpideak betetzeari dagokionez.
	4.10.1.3. Publizitatea egiterakoan, hizkuntza bakoitzaren berezitasunak eta esateko moduak errespetatzea: iragarkiak sortzean...
	4.10.1.4. Euskara argi, zuzen, egoki eta erakargarria erabiltzea.
4.11. Diru-laguntzak	
4.11.1. Diru-laguntzak esleitzerakoan, hizkuntza-baldintzak betetzea bermatu	4.11.1.2. Komunikazioa eta sentsibilizazioa lantzea langileen artean Udalak diru-laguntzen arloan ezarri dituen hizkuntza-irizpideei buruz.
4.12. Kontratazio administratiboak	
4.12.1. Kontratazioaren fase guztietan hizkuntza-baldintzak betetzea bermatu	4.12.1.1. Hizkuntza Ofizialen Erabilerrako Irizpideak finkatu eta betetzea bermatzea kontratazio administratiboen arloan.
	4.12.1.2. Kontratazioetan zerbitzua euskaraz jaso nahi dutenen eskubideak kontuan izateko bideak jartzea.
	4.12.1.3. Udalaren emakida diren baina jarduera pribatua duten establezimenduetan euskararen erabilera bermatzeko neurriak garatzea.

5. LAN MUNDUA

5.0. Alorreko eragileen arteko koordinazioa eta elkarlana	
5.0.1. Koordinazioa	5.0.1.1. Lan eta Merkataritza alorretan diharduten eragileekin koordinatu eta elkarlanean jardutea.
	5.0.1.2. Merkataritzan hitzarmengintza sustatzea.
	5.0.1.3. Sektorearen inplikazioa bilatzea udal hizkuntza politketan.
5.1. Lan munduan euskararen erabilera handitu	
5.1.1. Sentsibilizazioa	5.1.1.1. Herrian eragin handia duten enpresekin banan banako elkarrizketak egitea, euskararen erabilera plana gauzatzeko laguntza teknikoa erraztea... <ul style="list-style-type: none"> • Getxoko Enpresa eta Merkataritzarekin (GEEM) hitzarmena izenpetu, euskara plana izan dezan.
	5.1.1.2. Enpresa txiki eta ertainetan euskararen presentzia indartzeko laguntza eta sentsibilizazioa eskaintzea.
5.2. Merkataritza eta ostalaritzan euskararen erabilera handitu	
5.2.1. Sentsibilizazioa	5.2.1.1. Errotulazio finkoa eta noizbehinkakoa euskaraz ere jartzeko kanpainak martxan jartzea, merkataritza elkarteen bitartez...
	5.2.1.2. Elkarrizketak izatea merkatarari eta ostalariekin paisaia linguistikoaren inportantzia informazioa emateko.
5.2.2. Komunikazioa	5.2.2.1. Merkataritzan eta ostalaritzan dihardutenekin lan egitea; euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko zerbitzu sektorean.
	5.2.2.2. Euskararen erabilera normalizatzeko udalean bertan eta beste erakundeetan eskaintzen diren aukera eta programak ezagutzera ematea: diru-laguntzak errotuluak euskaraz jartzeko, laguntza teknikoa itzulpenetarako...
	5.2.2.3. Negozioetako jabeei jakitera ematea zer eta non aurki dezaketen euskarazko materiala: dokumentu ereduak, fakturak, menuak...

5.2.3. Laguntza ekonomikoa eta teknikoa eskaini	5.2.3.1. Merkataritza eta ostalaritza arloko elkarteekin koordinatuz, erabilera gehitzera bideratutako proposamen orokor bat luzatzea: ezagutza lantzeko, errotulazioa eta papeleria euskalduntzeko, material idatzien katalogoa (merkealdiak, itxita/zabalik)...
	5.2.3.2. Laguntza tekniko eta ekonomikoa eskaintzea errotuluak aldatzeko edo sortzeko.
	5.2.3.3. Ereduak, inprimakiak, hiztegiak, eta abar proposatzea, eskaintzea eta sustatzea.
	5.2.3.4. Merkatarari eta ostalarien ahalegina saritzea.
	5.2.3.5. Euskara merkataritzan sustatuko duen irudia sortzen lan egitea: herriko dendari eta ostalariek euskarazko zerbitzua ematen dutela identifikatzeko.
	5.2.3.6. Euskararen presentzia kalitatezkoa bermatzea noizbehinka egiten diren feria, azoka edota merkatuetako kartel, ohar eta informazio orrietan.
	5.2.3.7. Gomendioak luzatzea ohikoak diren akatsak ez errepikatzeko: gida, webean zintzilikatu...
	5.2.3.8. Aspaldiko urteetan sektorean euskararen erabilera orokortzea helburu duen GEHI merkataritza egitasmoa sustatzen eta zabaltzen jarraitzea.

6. AISIA

6.0. Alorreko eragileen arteko koordinazioa eta elkarlana	
6.0.1. Koordinazioa	6.0.1.1. Aisiaren alorrean diharduten eragileekin koordinatu eta elkarlanean jardutea.
	6.0.1.2. Aisialdi enpresekin hitzarmengintza sustatzea.
	6.0.1.3. Gaur eguneko aisialdi eskaintza laguntzen eta sustatzen jarraitzea.
	6.0.1.4. Sektorearen inplikazioa bilatzea udal hizkuntza politiketan.
6.1. Aisialdi eskaintzan euskararen erabilera handitu	
6.1.1. Sentsibilizazioa	<p>6.1.1.1. Hitzarmena sinatzea aisialdi taldeekin, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko.</p> <ul style="list-style-type: none">• GEHITU KULTURAren barruan aisialdia landu: aisialdi elkarten euskararen erabilera sustatzeko normalkuntza planak abian ipintzeko laguntza eskaini eta sortzen diren aisialdi elkarte berriei egitasmoa aurkeztu eta hitzarmena izenpetzea proposatu. Elkarteetan euskarak duen egoeraren gaineko diagnostia eguneratu.• Haurrentzako zerbitzuak kudeatzen dituztenekin hitzarmenak sinatu euskararen erabilera egokia bermatzeko: haur parkeak, urtebetetze festak egiteko lokalak...• Elkarten barne funtzionamenduan euskararen erabilera areagotzea lagundu. Bisitak eta elkarten jarraipena egin, Gazteria Foroaz baliatuta.• Gazte hizkeran euskararen erabilera sustatzeko jarduerak.
6.1.2. Komunikazioa	6.1.2.1. Informazioa ematea herritarrei euskarazko aisialdi eskaintzaz.

6.1.3. Ekitaldiak antolatu	<p>6.1.3.1. Haurrentzako ekintzak antolatzea: udako eskaintza (udaleku irekiak, udako ludoteka...); opor garaietakoa (tailerrak, informatika...); jolasak (herri-kirolak, jokoak...).</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udalak antolatutako aisialdi jardueretan euskarazko eskaintza bermatu eta urterik urte handitzen saiatu. • Ikastetxeetan: jolas orduetan euskara sustatzeko egitasmoak ikastetxez ikastetxe. • Udal Ludoteka. haur eskola eta gaztelekuetan euskara indartzeko lan egin eta diskriminazio positiboa landu. • Udalaz kanpoko euskarazko aisialdi eskaintzak indartu eta lagundu. • Udan, irailean, Gabonetan eta Aste Santuko oporretan, aisialdi jarduerak antolatu ume euskaldunentzat eta euskara menperatzen ez dutenentzat ere aisialdiko giro euskalduna ezagutzea eta erabiltzea bilatu. • Urte osoan zehar, asteburuko eta eguneko irteerak eta jarduerak ume euskaldunentzat. • Bizarra Lepoan Euskara Elkartek antolatzen duen <i>Bapiruke</i> auzo guztietara zabaldu. • <i>SENDI</i> proiektua sustatu: familia, guraso eta umeentzako ikastaroak, tailerrak, barnetegiak, gurasolagun taldeak eta hitzaldiak. • Areeta eta Algortako ludoteketan eta gaztelekuetan euskara sustatu. • Lagunarteko hizkera sustatu: Bizarra Lepoanek Gazte hizkera tailerrak antolatu ditzala. • <i>Euskara Zine Aretoetara</i> programan parte hartzera animatu eta hori gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak eskaini. • Euskarazko produktuen kontsumoa sustatu ikastetxe, haurtzaindegi eta ludoteketan: euskarazko produktuen katalogoa. • Gazte hizkeraren inguruan gazte kolektiboek eta beste lekuetako euskalgintzak eta administrazioek egindakoa ezagutu eta hurrengo ekimenak erabaki. • Udan, irailean, Inauterietan eta Gabonetan euskaraz antolatutako ekintzak indartu edo antola daitezten lagundu. • Udalak antolatutako aisialdi jardueretan euskarazko eskaintza bermatu eta urterik urte handitu, guztiak euskaraz eskaini arte.
	<p>6.1.3.2. Urte osoko gazte-programa planifikatu, diseinatu eta garatzea. Ekintza berritzaileak bultzatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gazteen artean erabilera sustatzeko ekintza zehatzak adostu eragile guztien artean. • Euskararen erabilera sustatzeko proiektu pilotu eta alternatiboak bilatu eta probatu.
	<p>6.1.3.3. Helduentzako aisialdi programa garatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aisialdiari buruzko euskaraz dauden materialak edo ateratzeko daudenak ezagutarazi.
	<p>6.1.3.4. Udalak eskaintzen dituen tailerren azterketa egin eta euskarari buruzko irizpideak markatzea.</p>
6.1.4. Laguntza ekonomikoa eta teknikoa eskaini	<p>6.1.4.1. Laguntza eskaintzea, aisialdi taldeetan sortu eta herritarrei helarazten zaien papereria euskaraz egon dadin edota kalitatezkoa izan dadin: tarifa merkeagoak, diru-laguntzak, hizkuntza aholkularitza...</p>
	<p>6.1.4.2. Diru-laguntza eskaintzea begirale agiri ofiziala lortzeko ikastaroa edo aisialdiko formazioa hobetzeko ikastaroak euskaraz egiten dituzten herritarrei.</p>
	<p>6.1.4.3. Diru-laguntzak eta zerbitzuak eskaintzea aisialdi elkarteei.</p>

7. KIROLA

7.0. Alorreko eragileen arteko koordinazioa eta elkarlana		
7.0.1. Koordinazioa	7.0.1.1. Kirol alorrean diharduten eragileekin koordinatu eta elkarlanean jardutea, GETXO marka eta haur eta gazte mailan aritzen direnei kontu berezia emanez.	
	7.0.1.2. Kirol elkarteekin hitzarmengintza sustatzea.	
	7.0.1.3. Sektorearen inplikazioa bilatzea udal hizkuntza politketan.	
	7.0.1.4. Getxo Kirolak-en euskara plan estrategikoa diseinatu eta garatzea.	
7.1. Kirol eskaintzan euskararen erabilera handitu		
7.1.1. Sentsibilizazioa	7.1.1.1. Hitzarmena sinatzea herriko Klub eta kirol taldeekin, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko. <ul style="list-style-type: none"> • GEHITU KIROLA egitasmoa sendotu, sustatu eta zabaldu. Hitzarmen honen bitartez, Getxon garatzen diren kirol jardueretan euskararen erabilerari bideak errazten zaizkio eta kirol entitateek egiten duten eskaintzaren kalitatea hobetzen da. • Getxon egiten diren kirol jarduera guztien azterketa egin, euskararen erabilera zein den jakite aldera • Udal Kiroldegietan (Fadura, Gobela, Andra Mari) Udalak onartutako erabilera planetik datozen irizpideei jarraitu: hizkuntza paisaia, ikastaroen eskaintza eta kontratazioetan. 	
	7.1.2. Komunikazioa	7.1.2.1. Euskarazko kirol eskaintzaz, informazioa ematea herritarrei.
	7.1.3. Ekitaldiak antolatu	7.1.3.1. Jendaurreko kirol jardueretan euskararen presentzia bultzatzea (futbol zelaian, saskibaloia kantuan, pilotalekuan...).
7.1.3.2. Herriko kiroldegietako haur eta gazteentzako kirol ikastaroetan euskarazkoen eskaintza handitzea.		
7.1.3.3. Getxo Kirolak-ek zuzenean edo diru-laguntza bidez antolatzen dituen kirol-probetan hizkuntza irizpideak ezartzea.		
7.1.4. Laguntza ekonomikoa eta teknikoa eskaini	7.1.4.1. Diru-laguntzak eskaintzea euskarazko eskolaz kanpoko kirol jarduerak antolatzeko.	
	7.1.4.2. Baliabide teknikoak eskaintzea kirol taldeetan sortu eta herritarrei helarazten zaien papereria euskaraz egon dadin edota kalitatezkoa izan dadin.	
	7.1.4.3. Euskaraz antolatu nahi diren ekintzetan beharrezkoak izan daitezkeen baliabideak eskaini eta lortzea erraztea.	
	7.1.4.4. Getxo Kirolak-ek bere jarduerak burutzeko egiten dituen kontratazioetako baldintza pleguetan hizkuntza irizpideak ezartzea.	

8. KULTURGINTZA

8.0. Alorreko eragileen arteko koordinazioa eta elkarlana	
8.0.1. Koordinazioa	8.0.1.1. Kultura alorreko eragileekin koordinatu eta elkarlanean jardutea.
	8.0.1.2. Euskaraz lan egiten duten kultur alorreko elkarteekin etengabeko harremana eta elkarlana izatea.
	8.0.1.3. Elkarte erlijiosoen jendaurreko ekitaldietan eta umeekin burutzen dituzten ekintzetan, euskararen presentzia eta erabilera ziurtatzeko laguntza eskaintzea.
	8.0.1.4. Sektorearen inplikazioa bilatzea udal hizkuntza politiketan.
	8.0.1.5. Sortuko diren kultur azpiegitura berrietan euskararen erabilerari buruzko plangintza diseinatu eta txertatzea.
8.1. Kultur eskaintzan euskararen erabilera handitu	
8.1.1. Sentsibilizazioa	8.1.1.1. Herriko kultur elkarteekin hitzarmenak sinatzea, haietan euskararen erabilera sustatzeko. GEHITU KULTURA: <ul style="list-style-type: none">• Kultur elkarteetan euskararen erabilera sustatzeko planak abian jarri.• Aisialdiko begirale eta zuzendari agiria lortzeko euskarazko ikastaroetarako diru-laguntzak eman.• Elkarteei zerbitzuak eskaini.• Kultur jarduerak sorrarazten duten materiala itzultzeko eta kultur elkarteetako materiala euskaratzeko laguntzak eman: <i>gehi@getxo.net</i> doako itzulpen zerbitzua.• Euskara hutsezko ekimenak abian ipintzen dituzten elkarteei laguntza bereziak eman.
	8.1.1.2. Euskara sustatzeko programa berezietan ikastetxeak ere parte hartzera bultzatzea.

8.1.2. Komunikazioa	8.1.2.1. Herritarren artean euskarazko kultur eskaintza ezagutaraztea: gidak, katalogoak, web orriak, sakelekoa erabilia...
8.1.3. Ekitaldiak antolatu	<p>8.1.3.1. Herriko jaietan antolatzen diren ekitaldietan euskararen erabilera bermatzea.</p> <p>8.1.3.2. Udal kultur planaren jarraipen eta berregokitzapenetan euskaraz lan egiten duten kultur elkarten ekarpenak kontuan izateko bideak aurreikustea.</p> <p>8.1.3.3. Haurrentzako kalitatezko kultur emanaldiak antolatzea.</p> <p>8.1.3.4. Heldu nahiz gazteentzat euskarazko kultur ekitaldiak antolatzea: dantza, musika, antzerki, bertsoak ...</p> <p>8.1.3.5. Udalaren baliabideek ahalbidetzen duten neurrian, administrazioak eskaintzen dituen kultur jardueren azterketa egitea eta euskarazko eskaintza sustatzeko plangintza diseinatzea.</p> <p>8.1.3.6. Kultura arloko euskararen plan estrategikoa egitea hurrengo urteetarako, udalerriko eragile ezberdinekin elkarlanean, betiere, euskararen erabilera eta presentzia handitzera bideratua.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Getxoko eragileekin (ikastetxeak, udala, liburutegiak, euskara elkarteak, komunikabideak...) urteko programa definitu. • Urte osoko eskaintza aztertu eta koordinazioa sustatu, hileroko eta Getxoko auzo guztietan jarduerak egon daitezkeen. <p>8.1.3.7. Euskara jardunaldien barruan, Euskararen egun handi bat sortzea; euskaldunak, bidean daudenak eta euskaltzaleak batuko dituen eguna, sentsibilizazioa indartu eta elkar ezagutzeko aukera emango duen ekitaldia.</p>
8.1.4. Laguntza ekonomikoa eta teknikoa eskaini	<p>8.1.4.1. Baliabide teknikoak eskaintzea kultur elkarteek sortu eta plazaratu nahi duten papereria euskaraz egon dadin edota egokia izan dadin.</p> <p>8.1.4.2. Euskaraz antolatu nahi diren kultur ekintzetarako beharrezkoak izan daitezkeen baliabideak eskaintzea.</p> <p>8.1.4.3. Euskal kulturarentzat estrategikoak diren eskaintzak bereziki laguntzea.</p> <p>8.1.4.4. Ahozko adierazkortasuna lantzea bultzatzea dezaketenen ekintzak laguntzea.</p>

8.2. Euskarazko kultur ekoizpenak eta sormena bultzatu	
8.2.1. Sentsibilizazioa	8.2.1.1. Herritarren artean euskarazko kultur produkzioen sormena eta kontsumoa bultzatzea.
8.2.2. Komunikazioa	8.2.2.1. Herritarren artean sortutako euskarazko kultur produkzioa ezagutaraztea: gida, katalogo, web orri, euskaltegi eta udaleko gune ezberdinetan... <ul style="list-style-type: none"> • Euskara ikasleei eta berbalagunei euskarazko produktuen berri eman eta euskal kultura kontsumitzera animatu. • Euskal kultur produkzioa sortu, zabaldu eta ezagutarazi. • Getxoko idazleen lanak sustatu, ezagutarazi eta prestigiatu. • Getxon sortutako euskarazko kultur produkzioa (bideoak, filmak, liburuak...) lagundu.
	8.2.2.2. Kultura Plan Estrategikoan eta kultur azpiegitura berrien jardueretan euskarazko ekitaldiak sustatzeko informazioa eskaintzea eta erraztasunak ematea.
8.2.3. Ekitaldiak antolatu	8.2.3.1. Udal administrazioak eskaintzen dituen tailerren azterketa egitea eta euskarazko eskaintza sustatzeko plangintza diseinatzea.
	8.2.3.2. Kulturgintzan eta herrian garatzen diren kultur jarduerak baliatzea euskararen aldeko sentsibilizazioa eta erabilera sustatzeko, batez ere, ume eta gazteen artean.
8.2.4. Laguntza ekonomikoa eta teknikoa eskaini	8.2.4.3. Euskara Zerbitzuak euskarazko kultur jarduerak eskaini nahi dituztenei azpiegiturak eskaintzeko bitartekaritza lana egitea.
8.3. Euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitu	
8.3.1. Komunikazioa	8.3.1.1. Liburutegiko liburuak eguneratu eta katalogoa herritarren artean zabaltzea.
	8.3.1.2. Euskal literaturako titulu nagusiak ezagutzera ematea: udalerriko web orrian, Getxo Berri... <ul style="list-style-type: none"> • Irakurtzeko zaletasuna sustatzeko dauden ekimenen berri eman eta horiek gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak edo laguntza eskaini. • <i>Euskal idazleen gida</i> argitaratu eta zabaldu.

8.4. Getxoko hizkera, toponimia, historia, ohiturak jaso eta hedatzea sustatu

8.4.1. Sentsibilizazioa	8.4.1.1. Herritarrengan eragitea euskal kultura, kondairak eta toponimia ezagutzera emanez.
	8.4.1.2. Getxoko hizkera, toponimia eta ondarea jaso eta ikastetxeen bitartez zabaltzea, herriko umeentzako eskola-material gisa.
	8.4.1.3. Getxoko euskararen erabilera bultzatu eta kalitatea zaintzea. <ul style="list-style-type: none">• Getxoko hizkuntza ondarea jaso eta zabaltzeko egitasmoa egin.• Getxoko komunikabideetan (irradiak, aldizkariak, egunkariak eta Internetekoak) sarbidea eman Getxoko euskarari.
	8.4.1.4. Jaurlaritzak aldiro egiten dituen azterketen jarraipena egitea edo eta Getxoko egoera soziolinguistikoaren bilakaera erakusten duten azterketak egitea.
8.4.2. Ekitaldiak antolatu	8.4.2.1. Herriko istorio zaharrak, kondairak, ohiturak... ezagutzera ematea: hitzaldiak ikastetxeekin elkarlanean; herriko adineko jendearekin elkarlanean, jai esanguratsuetan hizlari bat ekarri, grabaketak egin eta web orriari jarri...
	8.4.2.2. Gai horiei lotutako lehiaketak antolatzea herriko haur eta gazteen artean.
	8.4.2.3. Bertako azpieuskalki, toponimia eta ohiturei lotuta, eskualdeko beste udalerriekin elkarlanean jolas eta material didaktikoa sortzeko aukerak aztertzea.
	8.4.2.4. Abizenak euskal grafiaz jartzeko kanpainak abian jartzea.
8.4.3. Laguntza ekonomikoa eta teknikoa eskaini	8.4.3.1. Getxoko hizkera eta toponimia ondarea jaso, argitaratu eta hedatzea (ahozkoa zein idatzizkoa): toponimia, inguruko azpieuskalkiaren ezaugarriak, bilakaera, haur eta gazteen ezagutza eta erabilerari buruzko azterlana.

9. KOMUNIKABIDEAK

9.0. Alorreko eragileen arteko koordinazioa eta elkarlana	
9.0.1. Koordinazioa	9.0.1.1. Komunikazio eta publizitate alorreko eragileekin koordinatu eta elkarlanean jardutea.
	9.0.1.2. Sektorearen inplikazioa bilatzea udal hizkuntza politiketan.
9.1. Herri edo eskualde mailan euskarazko komunikabideen garapena sustatu edota euskararen erabilera bultzatu egungo komunikabideetan.	
9.1.1. Sentsibilizazioa	9.1.1.1. Komunikabideak euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtzea.
	9.1.1.2. Komunikabideetan herritarren eta, bereziki, gazteen partaidetza sustatzea: emanaldietako sarrerak oparitu...
9.1.2. Eskaintza sustatu	9.1.2.1. Eskualdean ari diren euskarazko komunikabideen hedapena laguntzea, harpidetzak zozketatuz...
	9.1.2.2. Udalaren komunikabide guztietan ere eduki guztiak euskaraz behintzat eskaintzea.
	9.1.2.3. Udalak eta baita bere autonomiadun erakundeek ere euskara eta euskarazko komunikabideak lehentasunezko zat izendatzea, herrian zabalkundea duten komunikabideen publizitatearen azterketa egitea eta euskarazko publizitateari buruzko irizpidea sortzea.
	9.1.2.4. Udalak sortzen dituen komunikabideen eta Komunikazio sailak erabiltzen dituen bitartekoen azterketa egitea, euskararen presentzia onartutako irizpideetara ekartzeko plana diseinatu eta garatze aldera.
9.2. Publizitatean euskararen presentzia bultzatu	
9.2.1. Sentsibilizazioa	9.2.1.1. Enpresa, merkataria eta elkartei zuzendutako sentsibilizazio ekintzak martxan jartzea publizitatean euskararen erabilera bultzatzeko.
	9.2.1.2. Publizitate enpresetan eragitea, bere jardueran euskara barneratzeak izan dezakeen eragina ezagutzera emateko.
9.2.2. Eskaintza sustatu	9.2.2.1. Udalak jartzen duen publizitatearen azterketa egitea eta euskararen presentzia onartutako irizpideetara ekartzeko plana diseinatu eta garatzea.
	9.2.2.2. Udalak eta udal autonomiadun erakundeek egiten dituzten publizitate ekimenetan euskara lehenestea. Horren bidez, argitaratu beharreko iragarki guztiak elebidunak, eleanitzak edo euskara hutsez izatea.

10. TEKNOLOGIA BERRIAK

10.0. Alorreko eragileen arteko koordinazioa eta elkarlana	
10.0.1. Koordinazioa	10.0.1.1. Teknologia berrien alorrean diharduten eragileekin koordinatu eta elkarlanean jardutea.
	10.0.1.2. Sektore honek ere Euskararen Aholku Batzordean ordezkari duela ziurtatzea, ESEP prestatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko.
10.1. Teknologia berrietan euskararen erabilera handitu	
10.1.1. Sentsibilizazioa	10.1.1.1. Herritarrengan eragitea, batez ere gazteenengan, euskaraz jo dezaten sarera, informazio bila.
	10.1.1.2. Herritarrengan eragitea, sarean barneratzen dutena euskaraz egon dadin.
	10.1.1.3. Herritarrengan eragitea, batez ere gazteenengan, sakelakoetan, ipod-etan eta gainerako tresnetan euskarazko menuak, mezuak... euskaraz izan daitezten.
10.1.2. Komunikazioa	10.1.2.1. Herritarrei teknologia berrien arloan euskaraz sortzen dena aditzera ematea teknologia berriak erabiliz: sms, web gunek, sare sozialak...
	10.1.2.2. Herritarren eskura jartzea euskararen kalitatea hobetzea helburu duten argitalpenak: idatzien ereduak, hiztegi elektronikoak... <ul style="list-style-type: none"> • Euskara lantzeko tresnen zabalkundea egin herritarren artean. • Udalaren zentroetan teknologia berrietako euskarazko produktu eta zerbitzuak eskaini. Euskarazko web orrien eta teknologia berrietan oinarritutako euskarazko produktu eta zerbitzuen katalogoa (<i>Sareko euskarazko produktuen katalogoa</i> izenekoa) osatu eta zabaltu herritarren artean eta udaleko sail guztietan.
10.1.3. Eskaintza sustatu	10.1.3.1. KZ guneekin harremanak izatea, bertan ere euskararen presentzia izateko.
	10.1.3.2. Udalaren web orrian Euskara Zerbitzuak duen atala garatu eta etengabe eguneratzea.
	10.1.3.3. Sarea euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtzea.
10.1.4. Laguntza ekonomikoa eta teknikoa eskaini	10.1.4.1. Herritarrek sarean ezartzen duten informazioa euskaraz ere egon dadin laguntzak bideratzea: testuak euskaraz emateko, zuzentzeko...

KUDEAKETA PLANAK

ERABILERA SUSTATZEKO EKINTZA PLAN hau urteroko kudeaketa saioetan banatuko da. Urtero jarraipena eta balorazioa egingo zaizkie kudeaketa aldi horretan martxan jarri diren neurriei eta Euskararen Aholku Batzordean aurkeztuko dira.

Egindako jarraipenaren eta balorazioaren ondorioz, Aholku Batzordeak aldaketak proposa ditzake, beti ere, udal erabaki organuek onartutakoaren barruan.

Plan honen helburuen eta martxan jarritako neurrien mesedetan, Getxoko Udalaren euskara ordenantzak proposatu eta indarrean jarriko dira.